




Nora jo zerbitzu hau erabiltzeko?

Honako hauek:

- Familien Atala, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia.
- Gizarte zerbitzu oinarrikoak eta Iruñeko auzo unitateak.
- Osasun etxeak eta adimen osasuneko zentroak.
- Hezkuntza sareko orientabide departamentuak.
- Emakumeari laguntzeko zentroak.

INFORMAZIOA, HEMEN:

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia
Familien Atala

Abejeras kalea, 1. zk.
31007 IRUÑA

Tel.: 848 42 12 58 - 848 42 12 64

orientacion.mediacion.familiar@navarra.es

Zerbitzura bideratzen duten entitate guztietan

NA-3695/2007

FAMILIA **BITARTEKOTZARAKO** ZERBITZUA

Eman pauso bat, eta lagunduko dizugu





Familia bitartekotza gizarte zerbitzu espezializatua da. Familiako kideen edo bikotekideen arteko edota bestelako gatazkak konpontzeko sistema bat da; prozesu boluntario eta konfidentzial baten bidez, alderdien arteko komunikazioa ahalbidetzen du, guztiak asetzeko moduko eta familia taldearen premiei erantzutea bermatzen duten akordio bideragarriak lortzeko. Bitartekotza taldea bitartekotzaz arduratzen da eta neutral eta inpartziala da.

Nafarroako Gobernuaren doako zerbitzu bat da



Norentzat da?

- Banantzeko edo dibortziatzeko tramiteetan edo seme-alabak ukitzen dituen beste prozesuren batean dauden bikoteentzat -familia prozesuetan eskumena duten organo judizialeetatik bideratuak-, akordioaren bat itunduz gero prozesua errazagoa izanen delakoan.
- Bitartekotza zerbitzu hau erabil dezaketen anai-arreben artean eta guraso eta seme-alaben artean sortzen diren familia gatazketarako, esate baterako:
 - Zaharrekin zerikusia duten gatazkak: zaharrak zaintzea, zahar-etxeetan sartzea, ezintasun egoerak, herentziekin zerikusia duten arazoak, ahaideei elikagaiak eman beharra, guraso eta aitona-amonen arteko arazoak, aitona-amonak bilobekin harreman normalizatuak izatea galarazten duten egoerak, belaunaldien arteko gatazkak...
 - Adingabeekin eta gazteekin zerikusia duten gatazkak: harrera eta adopzioen inguruko arazoak, jakiteko eskubideari lotuak, berregindako familietan egiten diren egokitzapen eta doikuntzak, familiak elkartzeko guneak, gazteen emantzipazioa...
- Familia bitartekotza ez da orientazio juridiko, sozial edo psikologiko gisa hartu behar, ez eta bikotearentzako edo familiarentzako terapia gisa ere.



Familia bitartekotzaz hitz egiten dugunean, zertaz ari gara?

- Familiako kideen eta bikotekideen arteko gatazkak elkarrizketa eta komunikazioaren bidez modu baketsuan konpontzeko laguntza zerbitzu batez.
- Profesional neutral baten laguntzaz, familiek eta bikoteek bi alderdiak asetzeko moduko akordioak lor ditzaten ahaleginak egiten dituen zerbitzu batez.
- Banantzearen kostu emozionala eta ondorio negatiboak arindu nahi dituen zerbitzu batez.
- Bitartekotza prozesuaren bidez, gatazkako alderdiek sor daitezkeen arazo berriak beren kabuz konpontzeko tresnak lor ditzaten ahaleginak egiten dituen zerbitzu batez.

